



KIROL EKIPAMENDUEN ERABILERA GENERO IKUSPEGITIK

ZERGATIK?



Azken urteotan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira emakumeek egiten duten elite-kirolaren arretan. Horrela, Aldundiak, Kirolgi Fundazioaren bitartez, laguntza ekitatiboak ematen ditu Gipuzkoako elite-taldeak finantzatzeko. Hala ere, generoari lotutako desberdintasun batzuk mantendu egiten dira: komunikabideen arreta, lan-harremanak edo kirol-ekipamenduetarako sarbidea.

Zehazki, kirol-instalazioetako ordutegietarako sarbidean, kontuan hartu behar da toki-politikak genero-ikuspegitik egiten ari direna, eremu horretan bidezko tratua ahalbidetuko duten politikak eta gomendioak egiteko.

NORK?

Kirol Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?

Kirol instalazioen erabilerari dagokionez, eliteko kirol taldeen gizonezko eta emakumezkoen arteko baldintzak parekatzea.

NOLA?

Foru Aldundiak egungo egoeraren diagnostiko bat enkargatuko du Gipuzkoako eliteko kirol-talde maskulinoek eta femeninoek kirol-instalazioak genero-ikuspegitik aztertzeke, egungo egoera deskribatuz, egungo egoera baldintzatzen duten kausak aztertuz eta, hala badagokio, hobekuntza alternatibak proposatuz.

- Talde sustatzaile bat eratuko da, eliteko emakumezkoen taldeetako Gipuzkoako klubetako ordezkariak, udaletako kirol eta berdintasun arloko ordezkariak, Kirolgi Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatua. Talde honek, diagnostikoa egiteko jarraibideak ezarriko ditu.
- Foru Aldundiak diagnostiko-azterketa bat enkargatuko du, politika gomendioak eta proposamenak ere jasoko dituenak.
- Kirol instalazioetako kudeatzaileei zuzendutako informazio eta prestakuntza ekimenak egingo dira.
- Eragina urtebeteko epean ebaluatuko da ezarri beharreko politikak ematen direnetik aurrera.



NON?

Bertakoa, Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



50.000€